

Lezoko kultur eta kirol elkarteak

1. UDAL MUSIKA AKADEMIA

Akademia bezala 86-87 ko urteetan eratzen da, ordurarte talde desberdin bezala iharduten zuten: txistu, solfeo, akordeoi, parrokiar abesbatza.

Egun Akademiaren lehendakaria Alkatea bera da eta irakasle bat Koordinadora Arduraduna, hamalau irakasle dira orotara.

Talde Zuzendariaren partaide dira:
Koordinadore Arduraduna.
Irakasleen Errepresentaria.
Ikasleen Errepresentaria.
Gurasoen Errepresentaria.
Erakunde Musikalen errepresentaria.

Ikasle kopurua 242koa da, matrikulak berriz, 432 dira.

Asistentziari dagokionez, justifikatu gabeko 3 hutsak edo bost justifikatuak, Akademiatik baja ematea dakar.

"Centro no oficial Reconocido" bezala kontsideratua dago, honen arabera, Komunitate Autonomoan onartuak daude, baina, beste zentro baten eskutik (Errenteria Musikal), oinarritzko maila onartzerakoan.

Adinari dagokionez, behin zazpi urte bete ezker ez da mugarik.

Helduek bi talde osatzen dituzte, etxeko andre eta musika zaleak direnak.

Txistu taldea 22 lagunek osatzen dute.

Txinparta abesbatzak 60 partaide ditu,

Txinparta txiki, 30.

Akordeoi taldeak, 12.

Ikasgaiak:

Solfeo: (Prestakuntza, 1-2-3-4-5)

Abesbatza 1.

Instrumentoak: Biolina, Biola, Biolontzelo, Akordeoia, Txistua, Txilibitua, Klarineta, Xirula, Pianoa, Tronpeta, Perkusioa.

Finantziazioa: matrikulen bidez, Eusko Jaurlaritzako diru-laguntzez eta defizitea Udaletxearen esku gelditzen delarik.

Etorkizunari begira, datorren urtean egoitza berri batetara aldatzeko asmoa dute, orain artekoa txikia gelditu bait zaie. Horrela balitz, baleta, trikitrixa, orkestako zenbait instrumentu martxan jarriko lituzkete.

Kontzertuak ugari izaten direnez, Kultur Etxean burutu nahi dituzte. (Orain arterainokoa Elizan izaten dira).



"Txepito eta Eustakio ikurriña eta Allerruko bandera eramaten 1989ko Santa Krutzetako danborradan"

2. DANTZA TALDEA

80. urtean bete zituen 25 urte, bere ibileraren hasera Patxi Larreak eman zuen, iraileko festetako jaialdi bat prestatzeko helburuaz. Haseran 30 bikotek osatzen du taldea, jendearen onarpena ikusirik sakontzen joan ziren dantza alorrean.

Inoiz ez dute estatutorik izan, partaidez gutxitzen joan zen heinean dantza-talde iraunkorra osatzen joan zan.

Denboran zehar ere arduradunak aldatuz joan dira, hala ere 76. aldean 100 bat pertsona osaturiko emanaldi bat antolatu zuten, hala ere, pixkana taldea desegin zen.



Kantinerero eta Kantinera. 1989ko Santa Krutzetan.

Ondoren egungo arduradunek fandango, arin-arin eta bati-bat, erromerietako dantzak erakusteko asmoetan hasiera eman diote lanari. Herriko jaietan partaide izaten dira eta Eusko Dantzarien Biltzarrean federaturik daude.

25. urteurrena zela eta erakusketa bat antolatu zuten, bertan 1000 kopa baino gehiago bildu zituzten, beren dantza saioen lekuko. Urte horretan hain zuzen, Euskadiko Txapelketan garaile izan ziren.

Segurako Txapelketa (fandango eta arin-arinaren Euskadiko goren trofeoa), hamabi urte betetzen dituelarik, Lezok, seiretan eskuratu du.

Segurako Txapelketa horretan Nestor Basterretxearen trofeo bat eskeintzen dute. Hiru urte segidan irabazi ezker, irabazleak herriratzen du trofeo hori. Lezoarrak izan dira dagoeneko bakarrak hori herriratzen.

Gipuzkoako txapelketari dagokionez, handi mailan Lezoko bikoteak hamabost aldiz jaso fu, gaztetxoek gehiagotan eskuratu dutelarik.

Urtero zabaltzen da deialdia jende berriak parte hartu dezan. Haseran dohainezkoa izanik ere, egun, 1.200 pezeta ordaintzen da hileroko.

80 dantzari dira eta astean hiru entsaio egiten dituzte, (udaran txapelketa dela eta, egunero izaten dira).

Udaletxeak eta Diputazioak zenbait jazkeretako dirulaguntza zuzentzen die.

Eguberrietan Loteria eta etxez-etxeko eskariz baliatzen dira laguntza erara.

Proiektuari dagokionez, areto ezagatik entsaioak seiretan hasten dira neska-mutilak batera, eguraldiak laguntzen duenean frontoiaz baliatzen dira. Hori dela eta, Udaletxearekin harremanetan dira egoitza lortzeko helburuz.

Pertsona baten dedikazio osoa beharrezkoa jotzen dute eta aldi berean, helduei dantza ikastaroak zabaltzea. Udaletxeari eskatuko lioteke irakasle hori subentzionatu dezan.

Azken finean, Lezoko herrian dantza eskola bat osatzea da helburua, bertan baleta, aero-bik, dantza... Lezoko jendea kanpora joan ez dadin horrelako aktibitateak burutzer.

3. LEZOKO ESKOLETAKO GURASO ELKARTEA

Duela hamar urte sortu zen Herri Eskolako Guraso Elkartea. Estatutoak arlo horretarako ohizkoak dira, Batzorde Zuzendaria: Gurasoek, klaustroak eta irakasleek osatzen dute.

400 bat sendik osatzen du elkartea, ikasleen arabera gehitu edo gutxitu egiten delarik.

Beren aktibitate espezifikoa hezkuntza eta inguruko gaiak dira.

Zenbait hitzaldi eratu dituzte: Sexualitateaz, kontsumoaz..., Plastika, kirolak eta irteeraz ere arduratzen dira.

Guraso Elkartek udaletxeko Kultur Sailean parte hartzen du, baita herriko festetan ere.

Finantziarioa bazkideen aportazioz burutzea da, beharren arabera da aportazioa.

Udaletxeak ere Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak jaso dituzte ere.



Elkarteetakoariak Torila Patata Lehiaketan irabazleak aukeratzen. Mendoste Jaiak 1988

Etorkizunari begira, Eskola Berriaren eraikuntza da helburua. BBB eta Eskola Profesionalen eraikuntza behar-beharrezkoa jotzen dute. Hezkuntzaren etorkizuna legediaren arabera nahi luteke Heziketarako Eskolaren eraikuntza.

4. LEZOKO A.E.K.

Lezon 1981ean hasi zuen bere ibilera euskaltegiak. Bere legalitatea Erakundea berari dagokiona da, orokorra.

Egun, 80 inguru ikasle dira bost irakasleen inguruan dabilzatenak.

Jendea erakarriko duen publizitatea erabiltzen da eta AEK-k bultzaturiko ekintza desberdinetaz.

Ikastaldiari dagokionez, egunero zazpi saio egiten dira, bakoitza bi orduetako osteguna bitartez.

Eguerdiko saioan, ikasle gehienak etxekoandreak dira, 30 urte ingurukoak. Illunabarrean berriz, gizonezko gehiago dira eta 25 urte ingurukoak dira.

Alfabetatze ikastaroetan bi talde dira, (hogei lagun).

BERaz heuren lan espezifikoa Euskara irakastea da, hortik kanpora Herriko jai, eta Kultur Ekintzetan parte hartzen dute.

Diru iturriari dagokionez, kuotak, matrikulak, udaletxea eta AEK-ri Eusko Jaurlaritzak ematen dizkien apurrak izaten dira.

Etorkizunari begira, bide horretan jarraitzea da.

5. ZINEKLUB TALDEA

Duela bi urte sortu zen taldea. ASKAGINTZA izan zen taldearen bultzatzailea, denbora-pasa alternatiba bezala eratu zen.

Zineklub Asoziazioari lotua dago eta estatutoak, sendotzen doan bitartean eratuko dira. (Taldearen asmo eta helburuen berri sakonago, ikus alboko orria 7).

Gaztetxoentzat ere emanaldirik egiten da, 80 gaztetxo inguru biltzen delarik, Antolakuntza honetan 10 guraso dira arduradun.

Astean behin izaten da emanaldia, talde bakoitzarentzako.

Adinari dagokionez, 5-13 urtekoak gaztetxoek taldea osatzen
 14-25 urtekoak beriz, gazteen taldea.

Zinea ezagutzea da helburua, kalitatezko zinea. Gazteek heuren gustoen arabera aukatzen dituzte filmeak. Beldurrezko gaiak eta zine politikoa gehien erakartzen diren generoak dira.

Emanaldien prezioa oso da baxua, zinean denei hurbiltzea da arrazoiak. Udaletxeak eta Foru Aldundiak ematen diote diru laguntza.

Etorkizunari begira, egoitza berezi baten beharra da eta Zineklub-aren sendotzea. Baita gazteengan zine zaletasuna zuzpertzeta.

6. HAURT XO HAURT ZAINDEGIA

Haurtzaindegia duela 12 urte jaio zen gurasoek bultzaturik, Estatutoak badituzte eta Barne Araudiak ere bai, asanbladaren bitartez hartzen dituzte erabakiak.

Egun 38 haur dituzte taldeetan sakabanaturik adinaren arabera, 4 hilabetetik 3 urteraino.

Haur sarrera onartzeari dagokionez, izena hartu hala zerrenda bat osatzen da, sarrerako lehen tasuna herriko haurrek dutelarik. (Aurtengoan herriko haurrek osatu dute plaza kopurua).

Haurren guraso gehienak etxetik kanpora lan egiten duten bikoteak dira eta bereziki irakasle- en seme-alabak dira gehientxoarenak. Haurraren heziketa da haurtzaindegiaren xedea.

Foru Aldundia, Udaletxea, eta gurasoen kuotak dira diru iturri, (kuotak gurasoen soldaten arabera dira) eta Lezotik kanpoko gurasoek gehien ordaintzen dute "hauek 20.800 pezeta-koak" ordaintzen dute, Lezoko haurrek 4.000-tik 20.000 pezeta arterainokoa ordaintzen dute.

Ordutegia, goizeko 7etatik, arratsaldeko 5-tak arterainokoa da maila ebaluatzeko.

Herri askolarekin harreman iraunkorrak dituzte euskara maila ebaluatzeko.

Etorkizunari begira, munizipalizazioa lortzea edo lan kontrato mugagabea lortzea da. Gela bat gehiagoren beharrean daude ere, esan beharrekoa da egoitza munizipala dela eta Udaletxearen gain direla bertako gastuak.



*Herriko Sokatira Taldea,
1986ko Santakruzetan*

7. ALLERRU ELKARTEA

Duela 25 urte sortu zen elkarte. Estatutoak badituzte, Batzorde Zuzendaria urtean behineko bazkideen Asanblada Orokorrean berritzen dute (bi lokal ezik).

350 bazkide ditu elkarteak. Ez dago bazkide kopuru mugarik, irikia dago bazkide berriei eta sarrerako baldintzarik ez dago. Gizon-emakumezkoak dira bazkideak eta adinari dago-kionez, ez dago mugarik ere.

Azken aldi honetan jendearen partizipazioa asko gutxitu da, egun futbol txapelketa da jende kopuru gehien biltzen duena.

Elkarren arteko aktibitate desberdinak:

- Futbola, gazteak (hiru talde), alebinak (2 talde), gaztetxoak (2 talde).
- Esku-pilotan, 30 partaide.
- Ehiztaritza.
- Argazki taldea, (8-9 lagun), ikastaroak antolatzen dituzte.
- Mendizaletasuna, (17 lagun federatuak).
- Herriko festetan partaidetza dute, sokamuturra, danborrada eta kirolak antolatzen dituzte.

Heuren finantziakoa bazkideen kuoten bidez eta Udaletxearen diru-laguntzaz eratzen dute.

Etorkizunerako asmoak, emakumeentzako futbola antolatzea izango litzateke, emakumeek ere partehartze aktiboa izan dezaten.

8. RUGBY ESKOLA INDEPENDIENTEA

Duela bi urte ekin zion bere ibilerari Lezoko talde honek, Euskal Herriko Rugby Eskola Independentearen eskutik hain zuzen ere. Kanporaldera, arau ofizialak betetzen dituzte, eskola honen barne ihardueran taldea osatzen duten gazteen zerbitzari kontsideratzen dira.

Gazteak garapen integral bat burutzearren lana eta kirola beharrezkoa du. Eskola honen xedea beraz, hau izango litzateke, gazteek marginazio mundutik aldentzea heziketaren bitartez.

Lezoko herrian 20 gaztek osatzen du taldea eta eskola inguruan 100-120 arteko gazte kopurua biltzen da, Orereta, Lezo, Lasarte, Billabona eta Azpeitiako herrien artean banandurik.

Eskola honen bultzatzaileak gazteengana joaten dira hauek parte har dezaten animatuz. Partaideen adinari dagokionez, 17-26 urte bitartekoak dira.

Eskola honen sorrera Donostian 1978. urtean Ondarretako kuartelaren okupazioarekin burutu zen, ondoren etxe horretatik bidali zituzten Anoetara eta geroago berriro bidaliak izango dira ere azken egoitza honetatik.

Eskolaren egitasmoa Euskal herriaren batasuna lortzea kirolaren bitartez, federazio bakar bat osatuz, kirolaren ondorioko joera bi hauek barne izan ditzan:

1. Joera konpetitibo estresantea.
2. Joera konpetitibo erlaxantea. (Azken hau aukeratuko dute heuren eskolarentzako).

Aipatu beharra, Rugby-a kirol bezala asoziaziozko ekintza dela, bere praktikan batasunak du balioa.

Egun Lezo-ko taldea mutilez soilik osatua dago, baina, izan da nesken taldea ere. Lehiakide ezak desagertuarazi du taldea.

Zenbait irteera egin dituzte: Brusela, Ingalaterra, Gales, Alemania, Holanda, Italia, aurtan berriz, Eskoziara joango dira.

Hego-Euskal Herrian Iparraldeko taldeekin soilik jokatzen dute.

Frantses taldeekin konpetizioak egiten dituzte ere.

Horrela izendatzen dituzte heuren partiduak:

Batasunezko partiduak = Iparraldekoekin.

Adizkidetasunezko partiduak = Frantsesekin.

Adizkidetasunezko partiduak = Espainolekin.

Eskolaren egitasmoan oinarrituz, Hegoaldeko talde federatuekin ez dira jolasten. Heuren xedea jokalaria Euskaldunen batasuna lortzea da, beraz, federazio hoiek zatikatu eta espainol bihurtzen gaituzten eritzikoak dira.

Iparraldeari dagokionez, esan beharra da bertan kokatzen dela Eskola bera eta Euskal kontzientzia hain hedaturik ez dagoenez, beste irakurketa bat egiten diote gaiari.

Inolako finantziario ofizialik ez du eskolak, propagandaren bitartez lortzen dute beharrezko ordainketak burutzea:

Eusko Jaurlaritzak hamaika urtetan zehar 100.000 pezeta luzatu die.

Lezoko taldeak Udaletxearen dirulaguntza jasotzen du.

Etorkizunari begira, heuren asmoa Rugby mixtoa bultzatzea izango litzateke beste zenbait berrikuntzen artean.

9. LEZOKO HERRI KIROL ELKARTEA. LEZOKO SOKA-TIRA ELKARTEA

Duela 9 urte sortu zen elkarte. Estatutoak badituzte eta beraiek agintzen duten eran Batzorde Zuzendaria daukate. Erabakiak beuren arteko asanbladaren bitartez hartzen dituzte.

17 lagun dira taldearen partaide (kirolariak eta zuzendariak barne).

Jende berrien etorrera lagunaren bitartez burutzen da, edo norberaren kaxaz, taldea irekia dago edonorentzat, hala ere, taldearen hizkuntza euskara hutsa dela eta, zenbait partaide joan izan da.

Egun, gizonezkoak dira taldea osatzen dutenak, inoiz ere emakumeak izan dira partaide.

Adinari dagokionez, 18-tik 34 bitartekoa da.

Aktibitate espezifikoki herri kirolan ingu-

*Herriko Kirol Taldea Gizon Proban parte hartuz.
Mendekozte Jaial 1988.*



ruan bildu daitezke. Soka-tira, Trontza, Lasto (bi modalitate), txikorta, aizkolariak, zakua, kontrabandista lasterketa...

Finantziazioari dagokionez, herri jaialdietan jasatzen dituzten sariak, Udaletxeak, (Foru Aldundiak ez die laguntzarik luzatu), Tiñelu Elkarteak, zenbait taternari, komertzio eta industriaren laguntzaz baliatzen dira. Kirol-Federazioak txapeldun gerta ohi denari diru laguntza ematen dionez, 1968 jaso zuten berea, garai horretan Euskadiko errepresentatzaile bezala joan bait ziren Suediara.

Holanda, Italia eta Ingalaterraren barrena ere ibiliak dira.

*Rexu Mazusta
Lezoko Elkarte Sozialak
1990ko otsaila*